

2020KO AURREKONTUKO AZALPEN TXOSTENA

KABIA 2015eko maiatzean hasi zuen bere ibilbidea, nahiz eta lau egoitzen benetako kudeaketa 2016ean hasi. 2017ko urte bukaeran beste hiru (Andoain, Bergara eta Lasarte) kudeatzeko mandatu eman zion Gipuzkoako Foru Aldundiak; 2018ko maiatzean Ordiziakoa kudeatzekoa. 2019ko lehen sei hilekoan beste lau egoitza kudeatzeko agindua eman dio: urtarriletik aurrera Oñati eta Errenteria, eta apiriletik Arrasate eta Tolosa. 2020. urtean KABIAN beste lau egoitza sartzeko aurreikusita dago: Pasaia, Eibar, Irun eta Hernani.

KABIAko zerbitzu zentraletako egitura osatzen joan beharko da egoitzetatik pasako diren langileekin edo/eta epealdi honetarako lehentasuna duten lanpostuak sortu eta bideratzen diren hautaketa prozesuen bidez.

Halaber, KABIAN zehaztutako antolaketa eta kudeaketa ereduaren eta asistentzialaren bateratze prozesuarekin jarraituko da, Gizarte Politika Departamentuak zehazten duen eredu asistentzialera egokitu beharko delarik. Bateratze prozesuan oinarritzak izango da erabiltzaileen kudeaketara zuzendutako aplikazio korporatiboa.

Bestetik, KABIAk bere plan estrategikoa eguneratu beharko du foru gobernu berriak ezartzen dituen jarraibide eta plangintzaren arabera.

2020ko aurrekontura begira, aurretik azaldutakoa kalkulatzeko garaian, Ogasun eta Finantza Departamentuak eta Gizarte Politika Departamentuak (KABIA foru organismo autonomoa atxikitua dagoena) finkatutako irizpideak kontuan izan dira. Irizpide horien artean egoitzak KABIAN sartzeko aurreikusitako data kontuan hartzen da.

INFORME EXPLICATIVO DEL PRESUPUESTO 2020

KABIA comenzó su andadura en mayo de 2015, siendo enero de 2016 cuando asumió la gestión de las primeras cuatro residencias. A finales del año 2017 la Diputación Foral de Gipuzkoa le encomendó la gestión de tres residencias (Andoain, Bergara y Lasarte), en mayo de 2018 la residencia de Ordizia y en el primer semestre de 2019 la gestión de otras cuatro: Oñati y Errenteria en enero, y Arrasate y Tolosa en abril. Para el año 2020 se prevé que le encomiende la gestión de las cuatro últimas residencias: Pasaia, Eibar, Irun y Hernani.

Durante este proceso, es imprescindible que KABIA vaya completando la estructura de sus servicios centrales, mediante el personal proveniente de las residencias y/o mediante la creación de los puestos necesarios y el desarrollo de los procesos selectivos para aquellos puestos que se ha identificado como prioritarios para este período.

Asimismo, se continuará con el proceso de convergencia hacia el modelo organizativo y de gestión y el modelo asistencial definidos en KABIA, y se irá adecuando al nuevo modelo asistencial que se defina por parte del Departamento de Políticas Sociales de la Diputación. En este proceso de convergencia será fundamental la implantación de la aplicación corporativa de gestión de personas usuarias.

Asimismo, KABIA deberá actualizar su plan estratégico en función de las directrices y la planificación del nuevo equipo de gobierno foral.

De cara al presupuesto de 2020, para calcular lo mencionado previamente, se han tenido en cuenta las directrices establecidas por el Departamento de Hacienda y Finanzas y los criterios establecidos por el Departamento de Políticas Sociales al que está adscrito el organismo autónomo foral KABIA. Entre los criterios se tiene en cuenta la fecha prevista de integración de las residencias en KABIA.



Horren guziaren ondorioz, KABIAko aurrekontua 2019an 45.606.777 eurokoa izatetik 2020an 53.778.358 euro izatea pasako da.

Como consecuencia de ello, el presupuesto de KABIA pasa de ser de 45.606.777 euros en 2019 a 53.778.358 euros en 2020.